



## ERRETERIA'KO MONJA AGUSTINAK ETA GIZARTE-PROBLEMA BAT XVI GIZALDIAN

LEKUONA'TAR MANUEL'EK

Gizarte-problema bat: norbere lurak Erriari dioten zorra alegia: erderaz *función social de la propiedad privada del suelo* esan oi dana, gure Agustinaen Konbentua egin zanean Errenteria'n garbi-garbi bete zana.

Eta ez Errenteria'n bakarrik gertatua. Leen ere iñoiz neronek aitatu bait det beste olako bat; Azkoitia'ko Basarte'ko Brigidaen Konbentua egin zanean gertatu zana, eta nik Peñaflorida Kondearen Omenaldiko Liburua argitaldua. Bi, norbere lurren Erriarekiko zor-kasu, biok ari berekoak eta ereti-okasio berdintsutan beteak.

Argi dezagun gauza.

\* \* \*

Azkoitia'n 1690'gn urtean Konbentu berri bat egin nai izan zan: Monja Brigidaentzat; eta ortarako, lenengo-lenengo, erriari baimena eskatu zitzaion.

Erriak, baietz erantzun zuan, Konbentua egiteko; bañan baldintza ta kondizio batekin: Konbentuetan oitura zan bezela, Monjak doteen enplegarri erosten zituzten etxeak, erosi eta berentzat euki ere zitzatela, bañan, edozein azkoitiarrek etxe aietako bat erosi nai bazien, saldu bearko ziotela. Etxeak erosteko eskubide osoa izango zutela, alegia: bañan erositakoa berentzat eukitzeko eskubidea, etzala eskubide osoa izango, iñor azkoitiarrek erosi naiko zien artekoa baizik; orduan saldu bearra izango zutela. Leenago ere, Santa Klara'ko monjai baldintza bera ipiñi zitzaiea.

\* \* \*

Gauza onen arrazoibidea, garaitsu artan bertan Calahorra'n eman zan.

Garaitsu artan, Calahorra'n ere Konbentu bat egin nai izan zan Santa Teresa'ren Ordenako Monjategi bat; eta

an ere, lenengo-lenengo Erribaimenaren billa mintzatu ziran. Bañan Erriak baimena ukatu egin zien, eta arrazoibide au eman: Konbentuak erosi egiten zutela, bañan saldu ez, eta orrela, ezarian-ezarian, erriko lurrik ederrenen jabe egiten zirala, eta ortatik *acaparamentua* deritzan okerra gertatzen zala, ondasun asko esku gutxitan bildu ta moltsatzea, alegia, Erriaren kaltetan...

Calahorra'ko gauza bera gertatu bait zitekean Azkoitia'n ere: Erriaren kaltetan lur-akaparamentua. Eta kalte ori galerazteko, baldintza, berezi bat ipiñi zioten Basarte'ko Konbentuari... Erriaren kalte bat galerazteko, Monjak erositako lurra berentzat eukitzeko eskubideari baldintza bat, neurri bat ipiñi, lurak erriari dion zorra garbi-garbi aitortuaz: *función social de la propiedad privada del suelo. Jus acquirendi*, osoa; bañan *jus possidendi*, neurtua, murriztua, Erriaren onagatik.

\* \* \*

Errenteria'ko Agustinaetan ere olako zerbait gertatu zan. Erosi bear zituzten lur-kontuan, neurri bat; bañan ez *jus possidendi* dalakoan, *jus acquirendi* delakoan baizik. Erriaren onagatik emen ere: lur geiegi esku gutxitan ez pillatzeagatik. Itz batean, Erriaren kalte baten arraikuagatik lur-eskubidea murriztua; ez, ordea, norberak erositakoa berentzat eukitzeko eskubidea, erosteko eskubidea bera baizik.

\* \* \*

Gauza au onela gertatu zan.

1558'gn urtea baño leenago, sortua zegoen Errenteria'n «Trinidad Guztiz Santuaren» izeneko Monjategi bat, San Agustín'en Ordenakoa; kaletik kanpora, bañan ez urruti. Iru aizpa dira Konbentuaren sortzalleak; Katalina, Barbara

eta Mari Juan de Asteasu, Kapitan Migel Juanot de Asteasu'ren eta Katalina de Zamalbide'ren alabak.

Aita aspaldian illa dute: gudatean illa. Amak 1558'gn urte artan Testamentua egiten du, bere ondasun guztiak bere iru alabai utzia.

Andik bi urtera ari dira, ari, Konbentua egiten. Ez, ordea, zerbait eragozpen gabe. Auzitan ere ibilli dira, bai Erriko Agintariekin, bai Elizako Apaizekin. Eta orregatik une ontan konbentugintzako lanak geldi daude. Bañan, aizkenik, 1560'gn urte artan pakeak egitea erabakitzen dute. Eta Uztaren 5'ean egiten dute batzar, Konbentuan bertan, Monjaen eta Erriko ta Elizako Agintarien artean, gauzak bear bezela erabakitzeko.

Eta orain dator, lurraren *función social* dalako kontua.

Egun artako erabakiaren bigarren zatiak, onela dio: «Ytem, que de los bienes rayces de so el termino y jurisdicción de la dicha Villa de la Renteria, tan solamente, el dicho Monesterio, Priora y Monjas puedan haber e adquirir para el dicho Monesterio, por via de dote de las doncellas y mujeres que en el dicho Monesterio entraren por Monjas... TIERRAS Y HEREDADES DE DOS MIL PIES DE MANZANO Y NO MAS. E, si mas tierra de los dichos dos mil pies de manzanos... hubieren adquirido... lo asi adquirido de mas... los hayan de vender y los vendan... dentro de cinco años primeros siguientes...»

Garbi-garbi ageri danez, berriz ere lur-kontuko eskubide bat murriztua; ez, ordea, eukitzeko eskubidea bakarrik, baita erostekoa ere: Monjaen doteen enplegarri, Errenteria'n bertan erosi dezaketan lurra, bi milla sagar-ondotaraño murriztua; eta, bi milla baño geiago gerta baledi, geiegia bost urte barru saldu bearra...

Erakabi orren arrazoi-muña ere garbi asko ageri da: berriz ere, Erriaren kalte-arraisku bat galeraztea; esku gutxitan lur asko moltsatzea galerazi naia, alegia. Berriz ere, garbi-garbi, *función social de la propiedad privada del suelo*, norberaren lurak beti ere Erriari dion zorra aitortuaz... Gure Soziologia jatorrak gaurko soziologizaleai ematen dien ikasgai jatorra: XVI-XVII gizaldiko ikasgaia...

\* \* \*

Eta zeintzuk izan ziran, ikasgai bitxi ori eman zigutenak gauza ontan ibilli ziranak? Zeintzuk Elizaren eta Erriaren aldetik, eta zeintzuk Konbentuaren aldetik?

Elizaren aldetik, etziran edozein batzuek; iru Batxiller, seguru asko Salamanca'n ikasitakoak: Batxiller Don Juan de Yerobi, Elizako «betiko Bikarioa», eta Batxiller Don Kristobal de Goizueta, eta Batxiller Don Esteban de Yrizar, eta oietaz gañera Don Martin de Zubeltza; laurak Elizako Benefiziadoak.

Eta Erriaren aldetik, Pedro de Durango eta Juan Zari de Zubieta, urte artako Alkateak, eta Sebastian de Zubieta eta Juan Ortiz de Agirre, Juradu Nagusiak, eta Gregorio de Aldayturriaga, Erriko Agintarietako bat, eta Juan Perez de Arrieta, arazo artarako Deputatu aukeratua...

Batxiller Juan de Yerobi ura beintzat etzan edozein bat: Loyola'ko Iñigo'ren adiskide-adiskide izandakoa; Santuari bere Jesus'en Lagundiarentzat eskeiñi bait zion, berak San Marko mendian bere boltxikotik egindako Santa Madalena'ren Ermita apaña...

Konbentuaren aldetik, Katalina de Asteasu, Monjategiko Priora izan zan: eta arekin batean aren aizpa Barbara de Asteasu, eta Katalina Anizketa bat, Monjategian ziran

bostetatik irurak; beste biak, Mari Juan de Asteasu, lengoen aizpa, eta Grazia Perez de Iraeta bat bait ziran...

Elizak eta Erriak izan zuten beren Kontseillaria: Batxiller Etxaran; eta Konbentuak ere bai berea; lizenziatu Ertzilla...

Egiazki gauza ondo pentsatua egin zan.

Gañerakoan, Konbentuaren fundatzalle ziran iru aizpa Asteasuar aien etxeari buruz, jakingari da, batez ere, aitaren izen eta giza-malla; Juanot Perez de Asteasu zeritzan eta Kapitana zan, itxas-kapitan; eta bere seme Martin Perez de Asteasu'k eta biok itxas-ontzi bat beren kontura armatzerano iritxi ziran, orduan inguru auetan ain maiz izaten ziran gudaetarako—Ondarribia'ko gudatarako batez ere—. Eta alako batean, burruka gogorrean, atxillotu izan zieten prantzesai itxas-ontzi bat; bañan, beste batean prantzesen arkabuz-tiro batek il zuan aita. Olakoxea zan Asteasuar aien etxea ta etxeokak.

\* \* \*

Eta olakoxe soziologi-ikasgai eziduriak ematen dizkie gaurko soziologi-zaleai, antziñako Errenteria'k, eta Errenteriako Agustinaen Monjategi zaarrak, bere lareun urteko zaartzaro errespetagarritik.

M. L.

*Se trata de un episodio renteriano de gran significación social, en la fundación del Convento de MM. Agustinas. Un caso del más claro reconocimiento de la función social de la propiedad privada del suelo en la sociedad renteriana del siglo XVI.*

*En efecto, las MM Agustinas tratan de fundar en Rentería un Monasterio de su Orden. Y la villa—tanto el Cabildo civil como el eclesiástico—condicionan la fundación: el eclesiástico, limitando los funerales que hubiesen de celebrarse en la iglesia del convento, estrictamente a los casos de religiosas fallecidas en el convento; y el civil, limitando el volumen de los bienes raíces que la Comunidad pueda comprar dentro de la jurisdicción de la villa, a sólo dos mil pies de manzano, de modo que cualquier exceso que en las adquisiciones renterianas de la Comunidad ocurriesen, el exceso habría de venderse dentro de cinco años.*

*Esta última limitación tenía por objeto el prevenir el peligro de acaparamiento de bienes raíces por parte de la Comunidad, por aquello de que las comunidades religiosas «compran y no venden», de donde pueden ocurrir casos de acumulación de bienes raíces en pocas manos—manos muertas—con daño del bien común del pueblo.*

*Un caso, como se ve, evidente, de reconocimiento de la función social de la propiedad privada del suelo, de limitación del derecho general de adquisición de bienes, por el peligro especial en el caso de las comunidades, que compran y no venden.*

*Un caso, este de Rentería, que no fue único en el país, sino que se dio repetidamente en la historia de nuestro Derecho. Un caso similar, de limitación en la posesión—no adquisición—de bienes raíces, se dio, en efecto, igualmente, en la doble fundación de las comunidades de MM. Clarisas y de MM. Brígidas en Azcoitia...*

*Como se ve, un par de lecciones de historia del Derecho del país, lecciones de no poca novedad y de innegable utilidad para el estudio de nuestra sociología histórica.*